


Europar espaziontzi bat Ilargira 2019an

NASA



EUROPAKO ESPAZIO AGENTZIA (ESA) Ilargirako bidea egin ala ez erabakitzen ari da. Orain arte AEBk eta garai bateko SESBk baino ez dute egin bidaia hori —gizakiak bidalita batzuetan, bestetan ez—, baina aspalditik ari dira zientzialari europarrak horretarako behar den jauzi teknologikoa eskatzen. Bidaia 2019an egitekoa da eta helburuetako bat izango da lur-hartze automatikoa egitea Ilargiko hego polon da, hau da, gure sateliteko lekuri ezezagunenetakoa. Kostua orotara 500 milioi euro ingurukoa izango dela estimatzen da. Ez litzateke

pertsonarik joango, gidaririk gabeko ibilgailu bat baino ez.

Proiektu honen oztipo nagusia krisia da. Hala ere, Frantziako komunitate zientifikoak proiektuaren alde egin du oro har, eta beste proiektu batzuen kostuarekin alderaketa egin du. Adibidez, Obamak eta Romneyk 2.000 milioi euro gastatu dituzte kanpaina, Hollandek 22 milioi, Airbus baten prezioa 304 milioikoa da, abiadura lasterreko trenbide kilometro baten kostua 30 milioikoa da, eta Frantziako Estatu osora zuntz optikoa eramateak 2.000 milioiko kostua izan zuen.

Datu horiek ikusita, ez al du Ilargira joatea merezi? ■



Lurretik erraz askatzen den txiklea

URTERO 370.000 milioi txikle produzitzen dira, hiru milioi tona. Txikle bat naturalki birziklatzeko epea bost urtekoa da; eta garbitzailak bi minutu behar izaten dute txikle bat lurretik askatzeko. Horrela, Londres bezalako hiri handi batek sei milioi euro behar ditu urtero hiriko txikleak kaleetatik kentzeko.

Revolymen enpresa britainiarrak txikleen ezaugarri orokorrak dituen polimeroa sortu du, baina bi desberdintasunekin: batetik, berehala desitsasten da lurretik; bestetik, sei hilabete baino ez du behar deskonposatzeko.

Material horrekin ekoiztutako txikleak salgai daude jada AEBetan, eta laster hasiko da European marketin kanpaina. ■



HOGAR.UNCOMO.COM



Orain 40.000 urte Lurraren iparra Hego polon zegoen

Itsaso Beltzean topatutako hondakinak aztertu ondoren, orain 40.000 urte Lurreko polaritatea aldatu zela ondorioztatu da. Horren susmoa bazegoen, baina azkenean ikerlari talde alemaniar batek frogatu du.

ttiki.com/44645
(Gaztelaniaz)

Biriken osasuna nolakoa, buruarena halakoa

Ohioko Unibertsitateko (AEB) zientzialari talde batek 50 eta 85 urte arteko zenbait pertsonaren azterketa eta segimendua egin du azken hemeretzi urteetan. Hainbat proba egin ondoren, erlazio zuzena aurkitu dute biriketako osasunaren eta buruko osasunaren artean, baina ez alderantziz, hau da, buruko osasuna txartzeak ez du eragiten biriketan.

ttiki.com/44646
(Gaztelaniaz)

Maien desagertzearen zergatia, estalagmitetan "idatzita"

Mexikoko Uxbenka eremutik kilometro batera dagoen leize bateko estalagmitak lehortu luze baten leluak izan ziren, hain zuzen ere, maien zibilizazioak hondoa jo zuen garaiko lekukoak. Itxura batean, maien zibilizazioa oso lehorrak izan ziren 80 urtetan desagertu zen.

ttiki.com/44647
(Frantsesez)

Babeslea: iametza Interaktiboa

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16